Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2405

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 14koa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariarena, Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariaren 2009ko urriaren 30eko Ebazpenaren bidez, egiaztagiria eman zitzaion Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (abenduaren 17ko EHAA; 242. zenbakia).

Batzordekide batzuk izendatzeko eta beste batzuk kargutik kentzeko jakinarazpena jaso da Farmazia Zuzendaritzatik. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoen kreditazioari buruz Osasuneko sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan (urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia) eta Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuan (13. artikulua) agintzen denarekin bat etorriz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide izatetik kentzea Adoración Jiménez Ortiz andrea, Farmazian lizentziatua eta Jesús Morán Barrios jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua.

Bigarrena.– Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoko kide izendatzea Carmelo Aguirre Gómez jauna, Medikuntza eta Kirurgia orokorrean lizentziatua.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean izango du eragina.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari eta Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 14a.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2405

RESOLUCIÓN de 14 de abril de 2010, del Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Mediante Resolución de 30 de octubre de 2009, del Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación (BOPV n.º 242, de 17 de diciembre), se concede la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Habiéndose recibido de la Dirección de Farmacia comunicación de solicitud de cese y de nombramiento de miembros del Comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de septiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el ejercicio de las funciones atribuidas por el artículo 13 del Decreto de 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo,

RESUELVO:

Primero.– Cesar a D.ª Adoración Jiménez Ortiz, Licenciada en Farmacia y D. Jesús Morán Barrios, Licenciado en Medicina y Cirugía General, como vocales del Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Segundo.– Nombrar a D. Carmelo Aguirre Gómez, Licenciado en Medicina y Cirugía General, como vocal del Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Tercero.– La presente Resolución surtirá efecto a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante la Viceconsejera de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria o el Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación, en el plazo de un mes a partir de su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2010.

El Director de Gestión del Conocimiento y Evaluación,
JOSÉ ASUA BATARRITA.